



Mugaz gaindiko moneta sozialaren erronkak



Egungo esperientzia azaltzeaz gain, etorkizuneko erronkak ere aztertuko dira ikuspegi ekonomikotik eta sozialetik.

Uzt. 04 2025

Kod. E04-25

Mod.:

Online zuzenean Aurrez aurrekoa

Edizioa

2025

Jarduera mota

Uda Ikastaroa

Data

Uzt. 04 2025

Kokalekua

Cité des Arts. Baiona

Hizkuntzak

Euskara

Balio akademikoa

10 ordu

Antolakuntza Batzordea

Fundación
BBVA



Azalpena

Mugaz gaindiko tokiko moneta baten sorreraren esperientzia azalduko da. Ipar Euskal Herrian Euskoaren ibilbidea eta egungo egoera aztertuko da, eta Nafarroako Baztan bailaran eta Gipuzkoako Oarsoaldea eskualdean egiten ari diren esperientzia pilotuak.

Prozesu hauetan, herritarrek, eragile ekonomikoak, eragile sozialak eta instituzioak dira protagonista, eta elkarlanean jarduten dute. Esperientzia hauek aztertu, sistematizatu eta metodologikoki osatuko dituzte Pau eta Baionako unibertsitateak eta Mondragon Unibertsitateko MIK taldeak, aurrerantzean beste lurraldeetara zabaltzeko: bai Euskal Herrian, bai Europako mugaz gaindiko beste lurraldeetan.

Egungo esperientzia azaltzeaz gain, etorkizuneko erronkak ere aztertuko dira ikuspegi ekonomikotik eta sozialetik.

Helburuak

Mugaz gaindiko tokiko moneta sortzeko prozesua azaltzea.

Zenbait lurraldetako esperientziak elkartrukatzea eta partaideen arteko elkarreragina sustatzea ekarpenak jasotzeko.

Etorkizuneko erronkak identifikatzea eta bide-orria lantzea, bertaratutakoekin elkarreraginean.

Programa

2025-07-04

09:00 - 09:15 Erregistroa

09:15 - 09:25 Jardueraren zuzendaritzaren aurkezpena

Ikastaroaren aurkezpena

Luis Intxauspe Arozamena

09:25 - 10:30 “Mugaz gaindiko tokiko moneta osagarriantza”

Nikolas Blain | Euskal Moneta - Koordinatzailea

Lorea Lizarreta Intsausti | Baztango Udala - Hautetsia

Joana Mendiburu Garaia | Oiartzungo Udala - Alkatea

10:30 - 11:30 Esperientzien eta bizipenen trukaketarako tailerra

11:30 - 12:00 Atsedena

12:00 - 13:00 Mahai ingurua: “Mugaz gaindiko moneta sozialaren erronkak”

Aizpea Otaegi Mitxelena | Oarsoaldeko garapen agentzia - Lehendakaria

Beñat Irasuegi Ibarra | Olatukoop - Mugaz gaindiko harremanen arduraduna

Oier Onaindia Romero | Mondragon Unibertsitatea eta UPPA - Irakaslea eta ikerlaria

Zuzendaritza



Luis Intxauspe Arozamena

GIZARTEAREN MONETA

Gizartearen Moneta elkarteko koordinatzailea.

Irakasleak



Nikolas Blain

Koordinatzailea, Euskal Moneta.



Luis Intxauspe Arozamena

GIZARTEAREN MONETA

Gizartearen Moneta elkarteko koordinatzailea.



Beñat Irasuegi Ibarra

Talaios Kooperatiba / Olatukoop

Kooperatibista, egunerokoan, Talaios Kooperatibaren kudeketa eta aholkularitza estrategikoko proiektuetan aritzen da lanean, bertatik Olatukoop, TEKS eta Koopfabrika bezalako interkooperazio proiektuen sorrera eta garapenean parte hartzen duelarik. Ekonomia lurraldeari lotua ulertzen du, eta bertan bizi diren pertsonen bizitza bizigarriak izateko beharrezkoa dituzten baliabideak sortu eta antolatzeke tresna gisa. Bide horretan, tokiko ekosistema kooperatibo eraldatzaileak eta kooperatibak sortzeko lanean ari da azken urteetan.



Lorea Lizarreta Intsausti

Hautetsia, Baztango Udala.

**Joana Mendiburu Garaiar**

Oiartzungo Udala

Alkatea, Oiartzungo Udala.

**Oier Onaindia Romero**

Mondragon Unibertsitatea

Irakaslea eta ikerlaria, Mondragon Unibertsitatea.



Aizpea Otaegi Mitxelena

Soziologian eta Politika Zientzietan lizentziatua da eta Elhuyar Fundazioko Aholkularitza Zerbitzuan koordinatzaile nagusia izan da 2019an Errenteriako alkate aukeratua izan arte. Fundazioan politika

publikoen arloko aholkulari lanetan jardun du batez ere hizkuntzaren normalizazioa eta berdintasuna gaiak landuz. Horrekin batera, Udako Euskal Unibertsitateko hainbat ikastarotan parte hartu izan du hizlari gisa, bai bi gai horiek jorratuz eta baita pandemia garaiko esperientzien inguruko azalpenak emanez.

Matrikula prezioak

AURREZ AURRE	2025-07-04 ARTE
Mugaz Gaindiko Uda Ikastaroak	0 EUR

ONLINE ZUZENEAN	2025-07-04 ARTE
Mugaz Gaindiko Uda Ikastaroak	0 EUR

Kokalekua

Cité des Arts. Baiona

3 Av. Jean Darrigrand, 64100 Bayonne, Francia.

Akitania